

EUSKARALDIA

11 egun euskaraz azaroaren 23tik abenduaren 3a

Ehunka gara **Euskaraldian** izena eman dugun herri eta entitateak. Guztion artean hizkuntza ohiturak astintzera goaz!

Zer lortu nahi dugu?

- Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertiak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.
- Euskal Herrian euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabe araztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikus araztea.
- Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.
- Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.



Ahobizi zara

Euskaraz egingo diezu ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin arituko zara euskaraz.

Ezagutzen ez dituzunekin lehen hitza euskaraz egingo duzu, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerakoak ere bai.

Ahobizi izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik! Ahal duzun guztietan euskara erabiltzeko prest? Ahobizi zara!

Belarriprest zara

Euskaraz dakiten guztiei zuri euskaraz egiteko gonbitea egingo diezu. Euskara ulertzen duzula adieraziko diezu eta zurekin euskaraz hitz egin dezatela eskatu.

Zuk euskaraz edo erdaraz erantzungo duzu, baina zuri euskaraz egiteko eskatuko duzu.

Belarriprest izateak ez du euskaraz hitz egiteko gaitasunarekin zerikusirik, jokaerarekin baizik! Dakienari zuri euskaraz hitz egiteko gonbitea egin nahi diozu? *Belarriprest* zara!



Nork parte har lezake eta non egingo dugu?

16 urtetik gorako herritarrek eman dezake izena eta bakoitzak bere inguruan, bere ohiko harreman sareetan egitea proposatzen dugu: familian, lagunartean, lanean, eskolan, dendetan... Horretarako, herrian antolatuko gara. **Lehen bilera irekia IRAILAREN 19an, asteazkena, 19:00etan udaletxean egingo da eta parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu.**